

Erref.: FMR/Legelari aholkularia

**DAVID LATXAGA UGARTEMENDIA JAUNAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK, HAU**

**ZIURTATZEN DU:**

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzak, 2021eko azaroaren 11n eginiko bilera arruntean (7/21 akta), besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

**5. gaia.- GUFeko Kontratazio Mahaiaren osaeraren aldaketa; Erregelamenduaren 12. artikulua.**

«**Lehenengoa.**- GUFeren kontratazioari buruzko erregelamenduaren 12. artikulua, Kontratazio Mahaiaren osaerari buruzkoa, aldatzea. Honela idatzita geratuko da:

“12. artikulua.- Erakundearen Kontratazio Mahaia honela eratuko da:

– **Mahaiburu titularra:** Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzako Giza Baliabideen zuzendariorde lanpostuaren titularra.

**Ordezkoa:** Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzako Lan Arriskuen Prebentziorako teknikari lanpostuaren titularra.

– **Mahaikide titularra:** Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritzako titularra.

**Ordezkoa:** Laguntza Zerbitzuen Arlo Teknikoko buru titularra.

– **Aholkularitza juridikoaren eginkizuna duen mahaikide titularra:** Kontratazio eta Ondare Arloko buru lanpostuaren titularra.

**Ordezkoa:** Administrazio Kudeaketako Arloko buru titularra.

– **Idazkari titularra:** Legelari aholkulari lanpostuaren titularra.

**Ordezkoa:** Ekonomia eta Aurrekontu Arloko buru lanpostuaren titularra.

Aurrekoa gorabehera, kontratazio-organoei elkarrizketa lehiakorreko prozeduretan edo berrikuntzarako elkartzeko prozeduretan laguntzeko, elkarrizketaren edo berrikuntzarako elkartearen gaian bereziki kualifikatuta dauden pertsonak hartuko dira, kontratazio-organoak izendatuak. Pertsona horien kopurua mahaiko kideen herena edo gehiago izango da, eta eztabaidetan hitza eta botoa izango dituzte

Fiskalizazio Zerbitzuko buruak edo hark eskuordetzen duen pertsonak parte hartuko du mahaiaren bileretan, eta fiskalizazio-lana besterik ez du egin beharko”.

**Bigarrena.**- Erabaki hau GUFeren web-orrian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea».



Eta hala jasota gera dadin, erabakitakoa betetzeko, eta bileraren akta onartzeak aldaketak eragin ditzakeela kontuan hartuta, ziurtagiri hau egin dut, Bilbon, bi mila eta hogeita bateko azaroaren hamaikan.

GUFE-REN GOBERNU BATZORDEKO  
IDAZKARIA

Sin.: David Latxaga Ugartemendia

A handwritten signature in blue ink, consisting of several loops and a long vertical stroke, positioned over the printed name.